

P A X




Kantika Ezpiritualak

MISSIONE, ERRETRETA, eta BESTE
DEMBORETAKO

AITA BENEDIKTANOEK ORAI AGERARAZIAK


Behar den baimentiarekin



U. I. O. G. D.

Jinkoua orotan izan dadila glorifikatia.

(SAN BENOATEN hitzak.)



BAYONAN

ANDRÉ LAMAIGNÈRE, LIBURU-EGILEA BAITHAN,

Jacques Laffiten karrikan numéro 9

—
1892

ABISAK

MISSIONE DEMBORAKO



Missionea da graziazko dembora bat : Jinko hounak populu bat egin diozaken grazia orotan haitatiena.

Missione sakratia bethia da graziez, argi berheziez, barkamenduz. Jesusen miseriakordiazko eta amodiozko seignalez.

Bakoitzak bere ahal guziaz behar du Missione saintiaz baliatu. Noula ?

1korik. Jinez *pheredekietarat*, haste hastetik. lehen egunetik. Familiako eri ez direnak oro, ountsa algar adituz, partituz, jin zoubbeit goizeko pheredikietarat, meza saintialat, bestiak arratseko zeremonietarat. Pheredikien atenzioneki entzutian da missioniaren indar handi eta berhezia.

2korik. *Othoitz* hanitch egin behar da. Othoitz gabe ez ditake errezebi graziarik ; grazia gabe ez da koumbertitzerik ; koumbertitu gabe ez da missionerik. Missione saintia anontzatia den mementotik beraz othoitz egin arrankurareki ; bakoitzak beraentzat eta herri guziarentzat.

3korik. *Bekhatuzko kostumak, okasioniak utzi* berhala ; eta gogo hounez, erran Jinkouari utzi gei direla sekulakotz, Jinko hounaren zerbutchatzia gatik.

4korik. *Gogouan erabil zer entzun den pheredikian* : algarrekin entzun dianez mintza ; bere konzientzia etsamina : *kobesione houn eta osso baten egitera* prepara ; *dolumenezko sentimendiak* Jinkouari galtha eta bihotzian ezar.

5korik. Isseya bai familian, bai herrian oro Missione saintiaz balia ditian.

N-246114

P A X

ZRV
3419

Kantika Ezpiritualak

MISSIONE, ERRETRETA, eta BESTE
DEMBORETAKO

AITA BENEDIKTANOEK ORAI AGERARAZIAK

Behar den baimentiarekin

U. I. O. G. D.

Jinkoua orotan izan dadila glorifikatia.

(SAN BENOATEN hitzak.)



BAYONAN

ANDRÉ LAMAIGNÈRE, LIBURU-EGILEA BAITHAN,

Jacques Laffiten karrikan numéro 9




Imprimatur :

DIHARCE, vic.-gén.

KANTIKA EZPIRITUALAK

MISSIONETAKO ETA BESTE DEMBORETAKO



I MISSIONIAZ

1. MISSIONIREN jitziaz
Jauna dela laidatu.
Helas! hau ez ukheitiaz
Zoumbat ezta damnatu!

Errepika.

Khirstiak, jin ziteye
Laster missionera,
Jinkouak deitzen zutie
Harekin baketzera *(bis.)*

2. Alagranziatan sarthu
Behar gira, Khirstiak :
Zeliak zabaltzen deizku
Bere tresor guziak.
Khirstiak, etc.

3. Egizie salbatzeko
Zien ahal guzia,
Eta Jaunari hartako
Galtha bere grazia.
Khirstiak, etc.

4. Iratzar, bekhatoria,
Jauna zaizu mintzatzen,
Haren hitzen entzutia
Zouri deitzu manatzen
Khirstiak, etc.

5. Pheredikien graziek
Zutie argituko
Bihotza hayen argiek
Dolumenez zaurthuko.
Khirstiak, etc.

6. Bekhatu guzietarik
Behar duzu hurruntu;
Zeren hetan gogorturik
Nahi zirade galdu?
Khiristiak, etc.
7. Bakhoitzari behar duzu
Errendatu beria
Ber gisan egin ezazu
Etsayeki bakia.
Khiristiak, etc.
8. Kitatu behar dutuzu
Kostuma gaisto horik,
Bethierekoz hurruntu
Okassionetarik.
Khiristiak, etc.
9. Jarteko bide hounian
Har ezazu korage,
Bestela beste mundian
Bethi dola zunuke.
Khiristiak, etc.
10. Khiristiak has gitian
Jaun hounaren maithatzen,
Haren gracia saintian
Heben harat bizitzen.
Khiristiak, etc.
11. Erran orazoniak,
Goiz arratsez chuchenki;
Salbamentuko graziak
Ukheiteko segurki.
Khiristiak, etc.
12. Hullant mahain saintialat
Khiristiak, ardura;
Jouan zitayen zelilat
Bidiak horik dira.
Khiristiak, etc.

II PHEREDIKU AITZINIAN

1. JITEN nuzu jiten zoure-gana,
Jauna, zoure hitzaren entzutera,
Argi zazu ene ezpiritia,
Eta betha dolumenez bihotza.
 2. Zoure suyez gorth ezazu, Jauna,
Egun goure pheredicari dena,
Gida zazu chuchen haren mihia,
Eta hounki bihotzik gogorrena.
-

III PHEREDIKU ONDOUAN

1. JESUS houna ez othoi diferi
Pharkatzeko bihotz hounkiari ;
Sekulakoz bekhatiri
Arnegatzen dirozut,
Bihotzeti.
 2. Deyez ari zinzeiztan aspaldin,
Azkenekoz hau naizula aitzinin ;
Pharka, Jauna, othoi, pharka
Ene falta guziak.
Othoi pharka.
 3. Miliountan ofentsatu zutut,
Graziarik merechi eztizut ;
Bena, othoi, konsidera
Zoure haurra nizala,
Aita houna.
 4. Salbazale oro houn zirena,
Orhit zite zer nitzaizun khosta,
Galbarioko mendian
Arrerossi naizula
Khurutchian.
-

IV

ESKERREN EMAITEKO

Errepika. DUGUN bethi laida } (bis.)
Jaunaren hountarżuna. }

1. Ouhoure, Ainguriak,
Zien Jinkouari,
Eta laidoriouak
Salbazale Jaunari,
Dugun, etc.
2. Zouignen aita houna den
Nola gu ezdeusak
Gutian suportatzen
Giren bezalakouak !
Dugun, etc.
3. Eskerrak Jinkouari
Zeren missioniak
Dereizkun igorri
Dohain oroz bethiak.
Dugun, etc.
4. Artzain houn bat bezala
Galgitin beldurrez
Ondoun bethi dabila
Goure bildu beharrez.
Dugun, etc.
5. Etsayak malerouski
Guntian hatzeman,
Eta hanitz ezarri
Ifernuko bidian.
Dugun, etc.
6. Bena salbazaliak
Goure libratzeko
Ifernuko sariak
Ditu phorrokatuko.
Dugun, etc.

7. Nourk ez du maithaturen
Jesus guziz houna ;
Nourk ez du goretsiren
Bihotzik leyalena.
Dugun, etc.
 8. Haren eztitarzunak
Zinez nai hounkitzen ;
Haren amouriouak
Ossoki nai beretzen.
Dugun, etc.
 9. Gutan du bai egiten,
Orai bere egoitza ;
Eta deiku bethatzen
Dohain oroz bihotza.
Dugun, etc.
 10. Jesusek du eginen
Goure konsolia ;
Gihaurtan dugu izanen
Graziaren bizia.
Dugun, etc.
-
-

V

SALBAMENTIAZ

1. BADEYA deus nessessario denik
Mundu huntan salbatzia baizi ?
Ez eztuzu beste egitekorik ;
Zeren beraz hain iazuki bizi ?
2. Eya, Jauna, mintza zite, prest nuzu ;
Nahi nuzu instruitu izan ;
Bihotz oroz sokhorri galtho nauzu,
Bizitzeko bide chucheman.
3. Zu-gatik erhokeriak uzten tit,
Zihaur zira oro maithagarri ;
Bethi zira, zouri esker badakit,
Zoure haurren gloriiaz egarri.

4. Auherretan munduco abantaillek
Troumpatzeko laussengatzen naye ;
Jinko Jauna, ene afetzionek
Zoure-ganat thiratzten nicie.
5. Zouazte hurrun ene ganik, plazerak,
Eniz nahi zier estekatu ;
Zouazte hurrun, zouazte, solaz erhouak,
Jesus bera nahi dut maithatu.
6. Gidatzen nai elhorrizko bidiaz,
Ofritzen deit hark bere kalitza ;
Bena, helas ! hori haren gloriáz
Gozatzeko gaiza gutia da.
7. Ikhouston tit zeliak idekiten,
Jesus prest da ene plazatzeko ;
Zoumbat hounek nayan egurukiten !
Hourac oro dire enetako.
8. Zoure suyaz, Jauna, erra nezazu,
Emadazu zoure sokhorria ;
Bethi fidel izan nahi nitzaizu,
Maite dizut zoure zerbutchia.

VI

AZKEN URHENBURIEZ

1. UTSUTUKI maneyatzen zirena,
Jinkouaren hitzen ahazkorra,
Hayez khountu egiten eztuzuna,
Orhit zite hiltziaz ardura.
2. Heriouak oro goithuren gutu,
Oro sarri, oro gira hilen ;
Gogoumazu, susprenituren zutu,
Behin baizik ezta ihour hiltzen.
3. Hil ondouan ihour jujaturen da,
Bena noula ? ah ! ountsa justoki :
Bekhatian arima hiltzen bada,
Ifernian date eternalki.

4. Ifernuko bortha lotsagarriak
Ber demboran idekiren dira ;
Koundemnatu dirate kriminelak
Sujeteki phena handitara.
 5. Orhit zite pharadussu santiaz,
Lekhu hora gogouan ukhezu ;
Bethiere arima bekhatiaz
Bictorious mundian dukezu.
 6. O zelia, eta jujamentia,
Ifernia, eta herioua !
Sinhesten dit zinez zien egia,
Horren dagu erraile Jinkoua.
-

VII

HERIOUAZ

1. GIZONA, noun duk zuhurtzia ?
Zer eztakik,
Eztela deusere bizia,
Kae bat baizik !
Hugunt ezak mundu erhoua
Orai-danik ;
Ah ! eztuk hurrun herioua
Hire-ganik.
2. Mundutar plazer galdietan
Abilana,
Jaunaz khounturik hire beithan
Eztiana ;
Orhit adi hil behar dela,
Eta bertan ;
Oren bat segurrik eztela
Mundu hountan.
3. Aberatsa, hi dihariak
Ai utsutzen,
Mundu hounen charma faltsiak
Illusitzen ;

Laster hire plazer maitiak
Tuk galduren,
Jinkouari hire khountiac
Tuk emanen.

4. Gaztia, eztuk ari zeren
Khorphitz horren
Bai manien bethi egiten,
Bai edertzen ;
Herioua gaztelarzunaz
Duk trufatzen,
Gaztiaren eramaitiaz
Duk gozatzen.

5. Tratulari intres gossia,
Deusek ere
Mundu hountan ezin assia
Behinere ;
Sarri hobi bat duk ukhean
Ostatutzat,
Dihariak oro utziren
Besterentzat.

6. Laboraria, auherretan
Iz phenatzen,
Herioua ouste gabetan
Duk huillantzen ;
Ereitzin egiteko lanak
Tuk hiretzat,
Eta hayen frutu ederrak
Primientzat.

7. Bat etzayo heriouari
Ezkapiren,
Zorrozki zayo bakhoitzari
Jarraikiren :
Edirenen tu Erregiak
Tronouetan,
Hala noula jente chehiak
Kabanetan.

VIII

JUJAMENTIAZ

1. HELAS ! egun batez ountsa behar duk khountu
Hire bizitziaz Jesusi errendatu ;
Azken oren hora edukak gogouan,
Hire houna edo gaitza dukec hartan.
2. Haren aitzinian zer begitharte dukek ?
Ikharaturen iz, korajerik eztukek,
Hire bihotzian irakourturen dik,
Eztukek mundian hari deus gorderik.
3. Juje justo hora ezin inganotzen duk,
Jujamentietan ezin ago chuchen duk ;
Bardin jujatzen tik tchipiak, handiak,
Halaber sujetak eta erregiak.
4. Zer erranen derok juje hari ordian ?
Hark ezarriren ai, hark konfursionian ;
Lotsa izan bahiz gizonarentako,
Zer lazdura dukek Jinkouarentako.
5. Orhit adi bethi egun terrible harez ;
Desabusa adi munduko abantaillez ;
Lotsaz ikharadi harez orbitzian,
Ukhak hire faltez dolu bihotzian.
6. Ah ! erregla itzak hire akzioniak ;
Garhait itzac ountsa hire passioniac,
Jesusec har ezan azken egun hartan
Bere saintieki alde escugnian

IX

IFERNIAZ

1. AH ! kreatura gaistoua,
 Damnatia izana,
Galdu diana Jinkoua,
Min baizik eztiana,
 Erraguk, erraguk,
Zer phena sofritzen duk ?
2. Zer ihardetsiren deizut ?
 Erraitez niz phenatzen,

Berriz erraiten badeizut,
Berriz niz thurmentatzen.

Ah ! ah ! ah ! sekula
Segi eskitzazula

3. Mundian laket intzana,
Noun da hire gloria,
Noun orai hire fortuna,
Noun hire ouhouria ?
Erraguk, etc.

4. Galdu da gloria hora,
Amets char bat bezala,
Jouan da jouan ene plazera
Douan bezala itzala.
Ah ! ah ! ah ! etc.

5. Aberats belhi gossia,
Noun da hire zilharra ?
Noun hire urhe maitia.
Eta muble ederra ?
Erraguk, etc.

6. Galdu dutugu guziak,
Eta guira peritu :
Thurmentu izigarriac ?
Heben gutu sesitu.
Ah ! ah ! ah ! etc.

7. Plazerer eman intzana,
Zer duk orai sofritzen ?
Hik duk merechi diana
Orai errezebitzen
Erraguk, etc.

8. Behar dizut eternalki
Plazer char bate-gatik,
Heben erre debrieki,
Hayez thurmentaturik.
Ah ! ah ! ah ! etc.

9. Besteren fortuna hounak
Troublatzen undiana,
Protsimouaren plazerak
Desolatzen ayana,
Erraguk, etc.
10. Goure bihotzak tristerik
Hanitz dira phenatzen,
Eta errabiaturik
Dira bethi erratzen.
Ah ! ah ! ah ! etc.
11. Gormanta meza utzirik
Desbotchu egilia,
Besta samuac nautserik
Jokulari handia,
Erraguk, etc.
12. Heben da heben gossetzen
Mundian gormant zena,
Heben da ountsa punitzen
Bihotz gaistouarena,
Ah ! ah ! etc.
13. Mendekazale gaistoua,
Pharkatzen ehiana,
Gorderik bethi phozoua
Begiratzen iana.
Erraguk, etc.
14. Eztugulakoz pharcatu
Maradikatu gira,
Sekulakoz koundemnatu
Bizirik erratzera.
Ah ! ah ! etc.
15. Herabesti horriblia,
Badakik ore falta :
Deus hounik ez egilia,
Arima neglijenta,
Erraguk, etc.

16. Ene herabe handiak
Heben ezarri nizu,
Thurmentu ah ! terribliak !
Bethi heben nuketzu.
Ah ! ah ! etc.
17. Ore lagun malerouser,
Ah ! komplazent erhousa,
Egitia-gatik plazer,
Tristetu due Jinkoua.
Erraguk, etc.
18. Heben gihauren lagunak
Goure bourreüak dira,
Jiten girade erriak
Algarren irestera.
Ah ! ah ! etc.
19. Hik ofentsatu iana
Protsimo inozenta,
Harez trufatzen intzana
Medisent insolenta,
Erraguk, etc.
20. Phikia eta sofria
Hourturik algarreki,
Goure hazkurri tristia
Dirade eternalki.
Ah ! ah ! etc.
21. Jinkouaren izenaren
Jurazale handia,
Gizon gaits bazter ororen
Arnegiez lazlia,
Erraguk, etc.
22. Orai niz orai dolutan
Zeren ene mihia
Hizcal nihan bourhauetan ;
Oi ! hau sofrikaria !
Ah ! ah ! etc.

23. Kofessorari ahalkez
Falten gordazalia,
Eta ardura gezurrez
Haren troumpazalia,
Erraguk, etc.
24. Jinkouak ezagutia
Banoki da gordatzen,
Orai dit, miserabilia,
Nic ountsa borogatzen.
Ah ! ah ! etc.
25. Hi berthute faltsiala
Bethi eman intzana,
Jesus Judasek bezala
Recibitu diana,
Erraguk, etc.
26. Dudalako bekhatian
Altharia hantatu,
Behar dizut ifernian
Sekulako sofritu.
Ah ! ah ! etc.
27. Hik dembora hain lazuki
Iragaiten beihian
Goure Jinko Jaunareki
Izan gabe bakian,
Erraguk, etc.
28. Heben diren gaitzak dira,
Phena, dolore su gar,
Erreprotchu, heyagora,
Bourhau, arnegu, nigar.
Ah ! ah ! etc.
29. Sofritzen dutuzien
Phena horietarik,
Lekhu garratz hortan diren
Dolore minetarik,
Aithor ezazie,
Gaitzena zoin duzie ?

30. Jakitia eternalki
Sofrituren dugula,
Eta bethi debrieki
Tchispilturen girela.
Ah ! ah ! etc.
31. Eternalki sofritzia,
Helas ! gaiza garratza !
Gaiza ikñaragarria !
Eihartzen zait bihotza.
Ah ! Jaun houna,
Ezkitayela damna.
-

X

PHARADUSSIAZ

1. LEKHU gloriousa, plazerez bethia,
Nourk khanta ditiro zoure laidorionak !
Zoin da arima chahia
Erran dirouana zoure charma ederra !
Gloriazko lekhia zira zu,
Noiz gozaturen zutugu ?
2. Noiz ukhenen dugu houn eternal houra,
Zoin ezpiritiak kontzebi ezpeitiro,
Ez eta aski admira,
Zoin mihiak ountsa esplika ezpeitiro ?
Houn desiragarria zira zu,
Noiz gozaturen zutugu ?
3. Noiz goure dolorez arraz libratu-rik
Ikhoussiren dugu Jinkouaren gloria ?
Mundiak interdaturik
Aithortzen derio bere pompa faltsia :
Egiazco gloria zira zu,
Noiz gozaturen zutugu ?
4. Miseria hoyak noiz jouanen dira ?
Noiz edanen dugu uthurri sacratian ?
Ah ! noiz dukegu plazera

Saintu oroeki izateko zelian ?

Egiazko plazera zira zu.

Nouiz gozaturen zutugu ?

5. Zeluko khortian nouiz aingurieki

Zoure Semiaren laidorio ederrak,

Eta Saintu oroeki

Khantaturen tugu, chukaturik nigarrak ?

Ah ! zouri giaudezu, Maria,

Othoi, zakizku balia.

XI PURGATORIOUAZ

IIK

1. ORHIT hadi purgatorio harez,

Noun beittutu arima laziak

Bere zorren aski phakatu gabez

Ezinago thurmentu handiak.

2. Ah ! erraguk, hik arima gaichoua,

Lekhu hortan zer dian sofritzen ?

Zer den, errak, hire suplizioua,

Jinko Jaunak noula hayan punitzen ?

3. Ah ! heben dik heben ountsa phakatzen

Bihotz lazuz eta negligentak ;

Su garretan gutuk ari tchispiltzen,

Pare gabe dutuk goure phenak.

4. Zer thempora hik igaren behar duk

Presountegi harrigarri hortan ?

Ourthe batez ala milaz behar duk

Hik sofritu su-gar horietan ?

5. Zoumbat ere beitira goure zorrak,

Hen arau tuk hebeko themporak :

Bena heben ourthe dutuk egunak,

Hambat dutuk thormentu borthitzak.

6. Badeya deus guk egin diro-gunik

Zien hortik libra-erazteko ?

Ez phenarik ez sakrifiziorik,
Deus eztugu guk neglijatuko.

7. Bai badutuk, amouinak, othoitziak,
Eta beste obra houn guziak ;
Berheziki heben meza saintiak
Llaburtzen tik goure thormentiak.
8. Egun batez zietzaz libraturik
Bagirate dohatsu zelian,
Etzireye izanen ahatzerik
Jinko maite haren aitzinian.

XII**GOROCHUMA EDO ERRETRETA**

1. IRATZAR hadi, bekhatoria,
Orena diguk helthia ;
Phitz ezak gogoua,
Kountre duk Jinkoua ;
Ordu diano egiitzak
Harekilako bakiak.
Erretreta
2. Gorochema diagu helthia,
Egizak penitentzia ;
Ikher arthareki,
Aithor bihotztoiki ;
Arrahenki har chedia
Huguntzeko bekhatia.

XIII**JINKOUAREN DEITZE SAINTIAK**

1. UTZUL adi, utzul bekhatoria,
Jinko hounak deitzen hai eztiki ;
Houn har ezak haren galtho saintia ;
Eman izok bihotza ossoki.
2. Bethiere hire falta orotan
Egin derat pietatez oihu,
Ene ganat deithu hait miliountan
Eta bethi hi gor eta mutu.

3. Zer da, errak, egin eztudan gaiza
Hire bethi irous ezarteko ?
Zoumbatetan tcherkatu dat bihotza ?
Zer hountarzun eztut hiretako ?
 4. Ni houn baniz, zeren naik ofentsatzen ?
Hiretaco ezti nizalako,
Hain krudelki hik naika laidostatzen ;
Enaik maite, maite haidalako.
-

XIV BEKHATORIAREN IHARDESTIA

1. HOUNA, Jauna, ardi herratu houra,
Zouin ardura tcherkatu beituzu,
Jiten nuzu zoure ezagutzera,
Orai zu gana utzultzen nuzu.
 2. Herraturik nahi nunduzun bizi,
Kountent, irous eta alegera ;
Bena, noun da, ah ! Jauna, zutan baizi
Edireiten bihotzen plazera ?
 3. Ikhouston dit ene ertzokeria,
Hanitchetan ofentsatu zutut ;
Othoi pharka Jinko amoratsia,
Ene faltez segur dolu dizut.
 4. Helas ! Jinko maithagarri zirena,
Berant zutut, berant ezagutu,
Berant zutut, gaiza guzien Jauna,
Mundu hountan egiaz maithatu.
-

XV DOLUMENAZ

1. O JAUNA ! zoure graziaz
Enuzu baliatu,
Zoure hountarzun handiaz
Aphur arrankuratu
Eni hounki egitetik
Zu etzira baratu ;
Bena nik, ene aldetik,
Noula zutut phakatu

2. Grazia berhezienez
Orai unguratia,
Egia entzun tudanez
Zorrozki kolpatia.
Ossoki niz ahalketzen
Bizitze igaranaz,
Ene bihotza da zaurtzen
Dolumen handienaz.
3. Helas ! harrokaren pare
Zouretzat niz gerthatu ;
Halere zu behinere
Etzeitzat mendekatu :
Añ ! egun dohatsu hountan
Graziak nai garhaitzen,
Sarthurik nibauren beithan
Hasten zoure maithatzen.

XVI

BER SUJETAZ

1. O JINKO handia, othoi, misericordia !
Aithortzen dereizut, ahalkez hourtia,
Zoumbat ogen dudan jarraikiz mundia.
Bena othoi pharka, othoi pharka,
Othoi pharka,
O aita maitia,
Othoi pharka,
O aita maitia.
2. Ah ! mundu galdia, ilusioneaz bethia !
Sobera fidatuz hi beithan, tristia !
Helas ! galdu diat Jaunaren grazia.
Bena othoi pharka, etc.
3. Haimbeste graziaz naizu, Jauna, aberastu ;
Eta ni noula niz hayez baliatu ?
Zoure kountre, helas ! bethi niz alchatu !
Bena othoi pharka, etc.

XVII

BER SUJETAZ

1. Zoure kountre niz alchatu,
Zelu lurren Nausia,
Zoure kountre niz armatu,
Hau da atrebentzia !
irrep. Ah ! noula ! ah ! noula,
Mundu hountan konsola !
2. Galdu dit inozentzia,
Helas ! hau da galtzia !
Harekin ene bakia,
Hau da zortha tristia !
Ah ! noula, etc.
3. Althariaren hougnetan
Egin tudan botouak
Bekhatiaz nik milatan
Ditit hautse guziak.
Ah ! noula, etc.
4. Zer eztuzu enetako
Egin, Jesus maitia ?
Nouiz nizate zouretako
- Ezagutzez bethia ?
Ah ! noula, etc.
5. Ene bihotza zaurthurik
Jiten nuzu zu-gana,
Nahiz ukhen ahatzerik
Bizitze igarana.
Jaun houna, Jaun houna ;
Ez, othoi, abandouna.
6. Ene arima gaichouaz
Pietate ukhazu,
Ene bizitze gaichtouaz,
Ah ! othoi, pharkamentu.
Jaun houna, etc.
7. Ossoki niz khambiatzen
Ni memento hountarik,
Zouri nuzu kontsekratzen
Bihotzaren erditik.
Jaun houna, etc.

XVIII ARIMA KOMBERTITU BATEN

SENDIMENTIAK KHURUTCHIAREN AITZINIAN

1. ENE arrerosteko
Kruzifikatu zirena,
Ene gaztigatzeko
Sobera sujet duzuna,
Ingrat niz zouretako :
Bena, othoi, pharka, Jauna ;
irrep.) Ah ! orhit zite odola
Enetzat eman duzula.
2. Zoure amoriouak
Ezpanai, Jauna, salbatzen,
Nihaouren bekhatiak
Suyala nizu egoichten ;
Lotseria handiak
Hanitch nizu aflijitzen.
Ah ! orhit zite, etc.
3. Behar nizun behatu
Ene kreazaliari ;
Bena behatu nuzu
Ogeneki mundiari ;
Nik merechi nikezu
Iferniala erori.
Ah ! orhit zite, etc.
4. Deithu naizu ardura
Zoure grazia saintiaz,
Ilusitu sobera
Nun duzun mundu faltsiaz,
Ountsa kombertitzera
Herabe nizun egiaz.
Ah ! orhit zite, etc.

5. Maite ukhen dereitzut
Munduko erhokeriak,
Orai ikhouston titzut
Haren ilusioniak,
Sobera badakizut
Zer darkhan lazukeriak,
Ah ! orhit zite, etc.

6. Izan zakitzat ezti,
Zoure dikezut bihotza ;
Nahi nikezu bethi
Doludun ene bihotza,
Zeren beitut merechi
Castigu thorpe garratza.
Ah ! orhit zite, etc.

XIX

KHURUTCHIAREN BIDIA

1. KHURUTCHIAREN bidia
Dugun egin, Kristi maitiak,
Salbamentuko bidia (*bis*)
Zabaltu deiku khurutchiak.
Errep. Khurutchia (*bis*) dugun bethi,
Oroek laida gorati (*bis*).
2. Gutarik laidoriouak
Titzu khurutchiak merechi,
Zeren salbazale hounak
Hartan gutian arrerossi.
Khurutchia, etc.
3. Khurutchiaren gaignetik
Ofritu zen goure Bictima,
Bekhatiaren thonatik
Han chahatu goure arima.
Khurutchia, etc.
4. Zuhain bateko frutiaz,
Helas ! guziak ginen galdu,
Khurutchik eman deikunaz,
Oro, nour bagira, salbatu.
Khurutchia, etc.
5. Bekhatiaren zor handia
Guk ezin phaka giniouna
Khurutchian phakatia
Zutzaz izan da Jesus houna.
Khurutchia, etc.
6. O bandera sakratia !
Zu bazutugu aitzinian,
Nekhez date gu galtzia,
Bethi girate biktorian.
Khurutchia, etc.

XX JINKOUAREN DEYAK GAZTIARI

1. O zu, gazte maitia ! zouri nuzu mintzo,
Entzun itzatzu gogotik zoumbait erran gozo :
Zelilako bidia deizut erakasten,
Isseya zite haren ikhastera heben.
2. Goiz-danik behar duzu Jinkoua maithatu,
Nahi bazira izan zelian dohatsu :
Gazte gaichtouak dira gutiz bestik galtzen ;
Aldiz gazte zuhurak haborouk salbatzen.
3. Ororen egilia, hora da Jinkoua,
Adin ororen ere jabe egiazkoua,
Arren harenak gira gaztetarzunian,
Hain ountsa noula goure zahartarzunian !
4. Hortik ikhous ezazu zoure egimbidia,
Etcheki behar duzun bizitze Saintia,
Jinkoua behar duzu bethi zerbutchatu,
Gaztian, zaharrian : ountsa gogomazu.
5. Gazterik Jinkouari zayonak emaiten,
Haren graziak titzu ausarki ukheiten ;
Adin lanjerous hartan zeren den pherestu,
Jinkouaren begiak bere gainin dutu.
6. Sakramentietara jarraikiz ardura,
Emanen deie aisa behar den indarra ;
Ordin ebiliren hiz zeluko bidian,
Ezarriz etsai guzik, hire hougne pian.
7. Bekhatia delakoz gaitz ororen gaitza,
Harentzat ukhen ezak bethiko huguntza ;
Bide hounin jouanez berma othoitzari,
Gogoua ere altcha usu Jinkouari.
8. O zuk, Jesus maitia, goure Jabe houna,
Jente gazte zuhurak hain maite tutzuna,
Egiazko zuhurak, zuk bethi mundian,
Othoi lagunt itzatzu, eror eztitian.

XXI

GAZTE KOMBERTITIA

1. MUNDU hounen charmak, ene gazte furian,
 Herratu, nundian plazeren hitzian,
 Eta nik, ertzoua, enian ikhouston,
 Lezebat hougñ pian, zeitadala zabaltzen.
 Orai niz utzultzen, jarten bide hounian ;

Errep.

Bena azkenekoz sartzen niz ni beithan,
 O Jinko maitia ! heda zoure argia ;
 Zoure hountarzunak emaiten dereit bizia.

2. O solaz erhouak, ilusione faltsiak,
 Zien uthurriau edan dut phozoua,
 Plazerik ez ukhen, ediren herioua,
 Helas ! merechitu bethiko thormentiak.
 Bena azkenekoz, etc.

3. Noun dira ziek ukhen tutzien soueignak,
 Aita, ama hounak, artzain berthutousak !
 Zer phena, zer chagri ezteiziet eman
 Herramentietan ebili nizanian ?
 Bena azkenekoz, etc.

4. Oi ! Jinko maitia, errendatzen nitzaizu,
 Utzirik mundia eta haren charmak ;
 Bihotza hounkirik nigarretan nuzu,
 Ikhoussirik ene lanjer izigarriak.
 Bena azkenekoz, etc.

5. O plazer ezta ! bake charmagarria !
 Berthutian orai zutut edireiten ;
 Zu gabe bizia lizate hiltzia ;
 Eta malur hori malerouski nik ukhen.
 Bena azkenekoz, etc.

XXII

BIRJINITATIAZ

1. DEZAGUN khanta goratik,
 Bai eta laida bihotzetik,
 Dohain ororen lilia,
 Aingurien ornamentia,
 Gizon ororen ouhouria,
 Zoin beita chahutarzuna,
 Berthutien erregigna,
 Jesusez maithatia,
 Eta ouhouratia
 Preferatuki
 Best'ororen gaigneti.

2. Ouhouretan den lehena
 Dudarik gabe birjinena ;
 Pare dira aingurien,
 Haur Maria Birjinaren,
 Espous Jesus maitiaren ;
 Behin ere nourk behar du
 Berthute hori kolpatu !
 Ez, ez, hitzeman dugu,
 Bizia emanen dugu,
 Begiratzeko
 Berthute hounen osso.

- | | |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>3. Berthute hounen lanjerak
Ountsa dakitza berthutousak,
Bai mundia, bai debriak,
Noula diren furiatiak,
Nahiz galdu bihotz chahiac ;
Bena hayen malezia
Aouherretan duk guzia,
Umil bahiz izaten,
Jesusi gomendatzen,
Lanjer hayetan,
Hire bizi orotan.</p> | <p>4. Birjina pare gabia
Zelietako berhezia,
Jesusen ama maitia,
Bekhatoren abokatia,
Hayen esperantcha guzia,
Zouri gira gomendatzen,
Eta zutugu othoizten,
Bethi beha zakhiskun,
Bethi lagunt gitzazun,
Chahu bizitzen,
Zelietara heltzen.</p> |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

XXIII JINKOUAREN MANIEZ

1. JINKO Jauna behar duzu bihotzez adoratu,
Gaiza ororen gagnetik hora bera maithatu ;
Houra da goure jabia, goure krezalia,
Salbatzeko behar diren grazien emailia.
2. Jaunaren izen saintia behar da ouhouratu,
Errespeitu handireki hora bethi aiphatu ;
Zinez titzu gaztigatzen saintutarzuna denak
Arhinzki juramentiak egiten dutienak.
3. Igantiak behar dira leyalki begiratu,
Jaunak bere zerbutchuko hourak titzu haitatu ;
Behar dira egun hourak igaren othoizetan,
Edo Jauna ouhouratzen beste zerbait gisetan.
4. Hire aita, hire ama, behar tuk ouhouratu,
Behar ordian laguntu, eta bethi maithatu ;
Jaunak benedikatzen tik ait'amentako hounak,
Ber gisan maradikatzen hayen gaichto direnak.
5. Aita amek ere bethe zien egimbidiak :
Irakats chuchenki haourrer zelilako bidiak ;
Hourak maithe tutziela, erakouts korrejitzuz,
Etsemplu hounez, othoitzez, bekhatutik hurruntuz,
6. Besteren houna behar da bethi errespetatu,
Batbederari justoki beria errendatu ;
Zelia duzu bestela sekulakoz galduren,
Zoure arima gaichoua debriari salduren.

7. Gaichtoki idokitzeko besteren hountarizona
Ez desira behinere ; Jaunaren mania da ;
Guti baduzu, gutiaz zira kountentaturen,
Eta hartaz Jinkouari esker hounak emanen.

XXIV

ELEBAZIONEKO

1. O zer michterioua ! Jesus dut ikhousten
Zeluco erregia altharila jaisten !
Dugun laida egiaz,
Maitha bihotz guziaz
Bethi mundu huntan Jauna,
Hel giten egun batez oro haregana.
2. Gouretzat amorioz zira sustatia,
Janhari egin ziren bihotz sacratia.
Dugun, etc.
3. Zer esker eztut, Jauna, zouri emaitako !
Zer amorio eztut zouri ekharteko !
Dugun, etc.
4. Heben harat ossoki zutut maithaturen,
Egundanik nitzaizu oro konsekratzen.
Dugun, etc.
5. Ideya saintu hountan eduki gitzazu,
Houni jarraikiteko indar emaguzu.
Dugun, etc.

XXV

KOMUNIONE DEMBORAN

1. HOUNA Jesus, achouri saintia,
Gouretako sakrifikatu dena ;
Bekhatian bazira, khiristia,
Gogomazu, ez huillant hounegana.
2. Jauna, zoure errebitzeco,
Behinere digne izan enuzu ;
Bena ene ountsa sendotzeko,
Hitz bat bera errazu, sendo nuzu.

3. Erran duzu hazkurri zirela :
Zoure gana, o Jesus, heltu nuzu ;
Badakizu benturatzen nizala,
Zeren zihaurk aholkatzen benaizu.
4. Ala beita zoure aholkia,
Jinko Jauna, houn, ezti eta bizi !
Zutan dizut ene sinhestia,
Eztirozut maitha ahal zu baizi.
5. Orai Jesus jin zeit bihotzila ;
Oi suertia ! Jesusek ni hazten !
Bai bere Jaunak hazten mithila,
Eta halaz hareki bat egiten !
6. Zer esker buhurturen dereizut ?
Zu ossoki eni emaiten zira ;
Bihotz orož resolitzen dizut
Zoure bethi ossoki maithatzera.
7. Jesus houna, zer galthatzen duzu ?
Nahi zutut orotan obeditu ;
Flaku nuzu, sokhorri nizazu,
Nahi zutut fidelki zerbutchatu.

XXVI JESUSEN BIHOTZ SAKRATIAZ

1. Bihotz Jesus maitiarena,
Graziaren uthurria,
Heben niz, Bihotz gartsiena,
Zoure ganat utzulia.
Errep. Aingurien amoriouac
Erra gitzala guziak,
Jesusen zinez maithatzeko,
Laidatzeko, benedikatzeko.
2. O ezia azki laidatuzko
Bihotz chahu sakratia,
Noiz zutut othe maithatuko
Merechi duzun bezala ?
Aingurien, etc.

3. Bihotz enetzat sustatia,
Berant zutut ezagutzen ;
Bihotz ezti preziatia
Ah ! berant zutut maithatzen.
Aingurien, etc.
4. Bihotz ihes lekhu segura
Kreatura guzientzat,
Amoriosa bera zirena,
Zer egiten dut zouretzat !
Aingurien, etc.
5. O Bihotz oro houn zirena,
Hasten niz zoure maithatzen,
Zu gabe bizi nahi dena
Dolugarri dut ikhouston.
Aingurien, etc.

XXVII LEHEN KOMUNIONE EGUNEKO

Meza demboran

- | | |
|----------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------|
| G. HAOURRAK, altcha bihotzak
Zien Jinkouari,
Umilia ziteye
Jesus maitiari. | G. Zeluko Ainguriak
Zien faboritan
Othoi zatzie, haourrak
Egun hardi hountan. |
| R. Bihotzak hasperenez
Eta nigarretan,
Heben gira guziak
Jesusen hougnetan. | R. O Birjina Maria,
Jinkouaren ama,
Gugatik othoi zazu
Zoure Seme Jauna. |
| G. Houna noun den helturik
Jaunaren eguna,
Zouintan emaiten beita
Zier Jesus houna. | G. Ofensatu tutzie
Aitzindari hounak,
Pharkamentiak egun
Galtha, haour maitiak. |
| R. Ah ! egun dohatsia
Argitu zaitana !
Nourk dezake koumpreni
Goure zorthe houna ? | R. Ah ! othoi pharkamentu,
Aita eta ama,
Baketurik gouatzan
Jinkouaren gana. |

XXVIII KOMUNIONE AITZINIAN

- | | |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------|
| G. HURRUNT ziteye, haourrak,
Bekhatu gaichtotik.
Begiak bazter bethi
Mundu herratutik. | R. Adio, bekhatia,
Adio bethikoz :
Jauna ganat gouatzak
Orai seculakoz. |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------|

G. Houna, Jesus maitia,
Bihotzak garretan,
Noun tutzun haour gaztiak
Mahaigh saintu hountan.

R. Tziaouri, Jesus houna,
Zoure haourretara,
Goure desir guziak
Orai zutan dira.

XXIX KOMUNIONE ONDOUAN

G. HAOURRAK zien bihotzek
Zer othe diroye ?
Ororen aitzinian
Esplika ziteye.

R. Noula edo zer gisaz
Gira mintzatuko,
Esker homen Jesusi
Heben emateko !

R. Boztario handian
Orai gira sartu,
Zeren Jaunak gutian
Heben bisitatu.

G. Zietan dago Jesus
Orai, haour maitiak,
Eman itzakozie
Bethikoz bihotzak

G. Zer grazia handia
Zien arimetan
Ukhen duzien, haourrak,
Orai mement hountan !

R. Jesus dago gourekin
Eta gu harekin,
Kontzekratzen gitsozu
Oro algarrekin.

XXX HAOUR KOMUNIANTEK BATHEYARRILA BOTUEN ARRABERRITZERA JOUITEZ

Errep.

Arnegatzen dut

Bihotzez dut,

Satani, haren solaz erhok uzten,
Zelia, lurra, enetzat hartzen.

1. BAGOUATZU batheyuko
Uthurri sakratila
Khiristitu gineneko
Botouen berritzera.
Arnegatzen, etc.

4. Templu saintian sartzera
Nundien gero deithu,
Jaunari kontsekratzer
Hain sarri khimitatu.
Arnegatzen, etc.

2. Sortzian ekharri nian
Arrest haren hausteko,
Hitzeman dut Batheyian
Jaunari amorio.
Arnegatzen dut, etc.

5. Konzekratsione hori
Egin nizun ordian,
Arnegaturik satani
Goratik hirouetan.
Arnegatzen, etc.

Hitz handi horren ondotik
Apheza zen mintzatu :
Hurrunt zedia eneganik
Satan zian manhatu.
Arnegatzen, etc.

6. Hantik bertan hour saintia
izan zeitan ichouri,
Eta Jaunaren grazia
Ordian nitan jarri.
Arnegatzen, etc.

7. Nuzu hantik hounat usu Eztat haren beldurrík,
Satanek tentaturik ; Arnegatzen dut, etc.
Bena Jauna nitan duzu,

XXXI

BER SUJETAZ

- | | |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>G. IRATZAR, haour maitiak,
Bihotzak prepara
Batheyuko botuen
Orai berritzera.</p> | <p>G. Arnegatu zunien
Debriaren obrer,
Jarraikiteko bethi
Jaunaren erraner.</p> |
| <p>R. Ezkinizun ordian
Ountsa koumprenitzen,
Zer promes Jinkouari.
Gunian egiten.</p> | <p>R. Behar dugu aithortu
Nigarra begian,
Helas ! ebili gira
Satanen bidian.</p> |
| <p>G. Arnegatu zunien
Debru gaichtouari,
Bethierekoz eman
Zien Jinkouari.</p> | <p>G. Hurrunt ziteye, haurrak,
Eskandaletarik,
Arnega mundiari
Memento hountarik.</p> |
| <p>R. Infidel ginelarik
Goure Jinkouari,
Jarraiki gira, helaz !
Etsai gaichtouari.</p> | <p>R. Arnegatzen dirogu
Mundu galdiari ;
Kontsekratzen bethikoz
Goure Jinkouari.</p> |
| <p>G. Arnegatu zunien
Debriaren pomper,
Eta libertimentu
Kriminel guzier.</p> | <p>G. Jaunarenak zireye
Orai, haur maitiak,
Segitzen batuzie
Zien hitz ederrak.</p> |
| <p>R. Helas ! segitu tugu
Pompa faltsu hourak,
Horrek egiten dutu
Goure bihotz minak.</p> | <p>R. Felizitatzen gira
Goure hitz emanaz,
Begiraturen tugu
Goure ahal guziez.</p> |

XXXII **BATHEYARRITIK UTZULTZIAN**

Errep.

Bai hitzeman dut

Bihotzez dut,

Jesus dudala nik zerbutchaturen.

Houra bera bethi maithaturen.

- | | |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>1. JINKOUARI egin tugu
Goure promes handiak ;
Sekula guk eztutngu
Hautseren goure hitzak.</p> | <p>2. Goure chede chuchenian
Jesus azkar gitzazu ;
Zoure zerbutchu saintian
Bizi nahi gutuzu.
Bai hitzeman dut, etc.</p> |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

- | | |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>3. Boztario saintu batez
Bethe zeiku bihotza ;
Satanek nahi eta ez,
Edutiko dit hitza
Bai hitzeman dut, etc.</p> | <p>4. O Jesus, goure Jaun houna,
Oro giaude zouri,
Hel ditzazun gouregana
Zoure graziak bethi.
Bai hitzeman dut, etc.</p> |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

XXXIII

AVE, MARIA

1. SALUTATZEN zutugu, Maria,
Emaztetan ororen chahiena,
Eta dela benedikatia
Zoure Seme goure arimen Jauna.
2. O Birjina parerik gabia !
Othoi zazu, othoi Seme maitia ?
Bethiere goure faboritan,
Orai eta hiltzeko orenian.

XXXIV

ANJELUSAK

- | | |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>1. ZELUTIK jinik Ainguriak
Mariari anountzatzen
Amatako Jinko Semiak
Houra diala haitatzen.</p> | <p>3. Berhala sabel sakratian
Mariak du kontzebitzen,
Eternala zaiku mundian
Gu-galik gizon egiten.</p> |
| <p>2. Hau naizula bethi neskato
Zeluko Jaun handiaren,
Haren erran saintiak oro
Nitan complitiak diren.</p> | <p>4. Zouri bihotzez giaudetzu
Zelu lurren erregigna,
Zelutik ukhen izaguzu
Harat heltzeko grazia.</p> |

XXXV AMA BIRJINAREN OUHOURETAN

1. ZELU lurren erregigna handia
Egun zouri hersatzen gutuzu ;
Khiristien esparantcha guzia,
Egun hountan zuk entzun gitzazu.

Errep.

Ama maitia,
Hel zakhisku ;
Othoi, Maria,
Salberaz gitzazu.

2. Aflijitu direnen konsolia,
Hel zakhisku munduko gaitzetan,

Berheziki. Ama guziz tendria,
Hiltzerako lanjer handietan.
Ama maitia, etc.

3. O Maria, ororen Ama houna,
Har gitzazu zoure gomendian.
Zoure haourrak, ez, othoi, abandona,
Sar artio zeluko glorian.
Ama maitia, etc.

XXXVI KONTSEKRAZIONE BAT MARIARI

JINKOUAREN ama guziz tendria ?
Zouri nizu Jaunak eman ukhen ;
Nizan geroz zoure haurra, Maria,
Oro zouri kontsekratzen.

Errep.

Ama maitia,
Deitzen nuzu ;
Nizan guzia
Emaiten nitzaizu.


Jakiletzat harturik Jaun handia.
Zinez deitzut egun hitzemaiten
Mundu hountan zutudala, Maria,
Ahal oroz bethi maithaturen.
Ama maithia, etc.

Behar handi noure hitzak hautserik
Egun batez maithatu mundia,
Ukhedazu Seme maitiaganik
Orai berin hiltzeko grazia.
Ama maitia, etc.

XXXVII SUB TUUM PRÆSIDIUM

ZOURI gomendatzen gutuzu,	Ezkitzazula abandona ;
Jinkouaren Ama,	Bena lanjer guzietan,
Goure othoitze umilak	Birjina santa,
Entzun itzazu.	Bethi zakhisku balia,
Goure behar ordietan	Gloriosa.

KONTSEILU ZOUMBEIT MISSIONE ONDOKO



1^{korik} HAOUR GAZTENTAKO. — Othoitziak ountsa egin; Aita amentzat houn eta obedient izan; maitha lana; usu eta ountsa kobesa.

2^{korik} NESKATILENTAKO. — Kobesa hilabetetik berantena, hobe hamoustetik eta zortzitik. Utzi sahetsialat urgulluzko, banitatezko beztimentak eta despendioak. Othoitz egin ezagutzeko Jinkouak zer bokazionetararat deitzen zutian. Lotsa izan buruz buriez, dantza, bilkura eta libertimendu lanjeros, defendatiez. Maitha modestia saintia. Erran chapeleta oro edo parte bat egun oroz.

3^{korik} EMAZTE ETA AMA FAMILIAKOENTAKO. — Kobesa hilabete oroz eta ahal bada usuago. *Senharraren eretzeko* pratika obedientzia, modestia, eztitartzuna eta ichiltartzun saintu bat. *Beren haourren alderako*, eman etsemplu houna, artha eta arrenkura handi bat har hen korrejitzeko, hen egunaz eta gaiaz begiratzeko, okasione behar ez dienetan ez uzteko, noun eta notrekin dabil-tzan kontu hartzeko. *Prauben eta erientako* karitatea pratika, houn izan. *Jinkouaren zerbutchuko*, izan khartsu, amoriotsu; zer nahi sakrifizioetararat izan prest, Jinkoua beren faltaz ofentsatia izan ez dadin. Har korejia eta konfidantcha; orhit othoitzezko, lanezko, ichiltartzunezko, sofrikariozko biziaren ondotik, zelietan izanen den errekoumpentsa ederraz.

4^{korik} GIZONENTAKO. — *Gizon gazteak* behar du kobesatu hila-betik bere aste edo igande hartian.

AITA FAMILIAKOA orhit dadila ez dela egiaz houn eta kiristi, noun ez ditian bethatzen bere egimbidiak Jinkouaren eretzeko, othoitzez eta errelijioneko beste pratikez. Ouhouretzat ethek dezala bere familiari etsemplu hounaren emaitia, jarraikiz Elizako urhats guzleri, othoitzaren familian egiteari, kobesatziari, komu-niatziari, meza bezperetan arkitziari. Ez dezala hounets sekula, noun ez den nesesitate, igandetan lanik. Utzi juramentiak, arne-giak, elhe bhar ez dianak. Maita etheko, familiako bizia, arthareki sahetsialat utzirik despendio behar gabeak.

5^{korik} OROENTAKO. — Bakoitza bere araberako kongregazione edo konfrarioetan sar: hala noula, gazteak Ama Birjinaren kongregazionean, eta bai gizonak bai emaztiak San Frantsesen heren ordenian; — garraia habitu edo eskapulariouak; izenak ezar Arrosarioko eta Jesusen Bihotz sakratuko konfrarioetan; kasu har familian ethekia izan dadin hilabetearen *lehen ortzira-leko* deboziona, eta Jesusen Bihotz Sakratiari hilabetian behin *familia ouziaren kontsekraziona*.

P A X



AR K I T E G I A

1.	<i>Missioniaz</i>	Palm.	3
2.	<i>Pherediku aitzinian</i>		5
3.	<i>Pherediku ondouan</i>		5
4.	<i>Eskerren emaiteko</i>		6
5.	<i>Salbamentiaz</i>		7
6.	<i>Azken urhenburiez</i>		8
7.	<i>Heriouaz</i>		9
8.	<i>Juyamentiaz</i>		11
9.	<i>Iferniaz</i>		11
10.	<i>Pharadussiaz</i>		16
11.	<i>Purgatoriouaz</i>		17
12.	<i>Gorochema edo Erretreta</i>		18
13.	<i>Jinkouaren deitze saintiak</i>		18
14.	<i>Bekhatoriaren ihardestia</i>		19
15. 16. 17.	<i>Dolumenaz</i>	19. 20.	21
18.	<i>Khurutchiari</i>		21
19.	<i>Khurutchiaren bidia</i>		22
20.	<i>Jinkouaren deyak gaztiari</i>		23
21.	<i>Gazte koumbertitia</i>		24
22.	<i>Birjinitiaz</i>		24
23.	<i>Jinkouaren maniez</i>		25
24.	<i>Elebazioneko</i>		26
25.	<i>Komunione demboran</i>		26
26.	<i>Jesusen Bihotz sakratiaz</i>		27
27. 28. 29.	<i>Lehen komunione eguneko</i>	28.	29
30. 31.	<i>Bathey-arrila joaitz</i>	29.	30
32.	<i>Bathey-arritik utzultzian</i>		30
33.	<i>Ave Maria</i>		31
34.	<i>Anjelusak</i>		31
35.	<i>Ama Birjinaren ouhouretan</i>		31
36.	<i>Kontsekracione bat Mariari</i>		32
37.	<i>Sub tuum praesidium</i>		32

Ut in Omnibus Glorificetur Dominus

Jinkoua orotan izan dadila glorifikatia